

AITA JENERALAREN ESKUTITZA

Julen Urkizari
Markinan

Julen Urkiza, ogeitabost urte dira Karmel aldizkariaren zuzendaritza artu zenduala. Zor deusut idatzi au abagune onetan, eta zorra pozik be pozik beteten dot. Batez be ordurarte eta zure aldian aldizkari orretan idazteko zoria izan nebalako.

Leenengo sentitzen dodan zirrada arridura au dot: ogeitabost urte igaro dirala ordurik ona, belaunaldi bat! Olako igaraldietan beti edo sarri senti eta esaten dogun gogoketa: bai arin doazela urteak, guretzat oraintsukoak.

Bigarren arridura: aldi guzti onetan, zenbakirik zenbaki, urterik urte zuzendaritzan irauteko gauza izan zarala. Jakina denez, merituzko zuzendaritza ori beste lan andi askoren arteko bat baino ez dozu. Eginkizun orretan zenbat gai, zenbat idazle izan dituzun gogoan eta ardurapean. Egingo dozu, orretarako maisu zaranez, gai eta idazle guzti orreen zerrenda. Areetariko ez gitxi joanak dira gure artetik. Euren izenak, eta irudiak, agurgarriak ditugu, kulturaz eta adiskidetasunez gogoangarriak.

Euskal gizartean, mundu zabalean bezala, gauza asko dira bitarte onetan jazo, gogora-ezin beste aldakuntza. Kanpoko

gertakariak asko eta andiak izan dira, baina gogo eta kultura eraldaketa, sakonagoa izan da bearbada (zeatzago esanda, guretzat ezaguna danez, aurreko urteetatik etorrena). Aize-bolada orren erdian, *Karmel*-ek or iraun izan dau, euskal kulturari eta kristau mezuari eutsiz. Nik uste, patxadaz eta duintasunez. Aldi gaitza izan da, eta da, baiña or egon bear zan, ain zuzen be gaitza dalako. Eta bidaldi orretan ardatza zu izan zara. Ondarutarra zaranez, egoki esan daikegu lemazaina izan zarala.

Zuzendari izendatua izan ziñanean, ni Kontseilukoa nintzan. Gogoan izango dozu bearbada, au esaten nebala: irurteko aretako erabagien artean gauza bat beintzat ondo egin genduala: zu *Karmel*-en zuzendari izendatzea. Txantxetan egiten genduan berba, sarritan oi zanez, baiña egia utsa esanez. Orain olgeta barik, egia berbera diñot, ogeitabost urte oneen ondoren, ikuspegi osoa begi aurrean dodala, miresturik.

Orain, dakizunez, urrun nabil, munduan zear geratu gabe, izkuntza eta kultura eta gizarte ezbaridiñetan sartu bearrez. Bizikizun andi-zabala, esperientzia konta-ezina. Onek, baiña, benetakoa bada, ez dau leku bakoitzeko balioa eta garrantzia gixiasten. Eta gure erriaren kultura eta bizipena izateak beste kulturak ulertu eta onartzeko zelanbait gertu egiten gaituala esan leike.

Goraintzi beroak lankide zintzo guztiei, eta *Karmel*-irakurle etxekoei.

Zuk Urkiza, orain zuzendu barriri ere itxasontzi branka itxaso zabalera, “joateko urrutira”, beste ogeitabost urtetarako ibilaldira.

Erromatik, 2008eko apirilaren 5an

Luis Arostegi